


**IDAZMENAREN  
EBALUAZIOA**

**TESTUAK ZUZENTZEKO  
IRIZPIDEAK**

Ebaluazio Diagnostikoa Hizkuntza-  
komunikaziorako kompetentzia  
2011

Lehen Hezkuntzako 4.maila  
INGELESA



**ISEI-IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

## 1. IDAZMENA ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

### Ebaluazio-irizpideen azalpena

Hizkuntza idatzia ebaluatzeko irizpideak hiru bloketan antolatu dira:

- Komunikazio-egoerara egokitzea (Gaitasun Soziolinguistikoa)
- Koherentzia eta kohesioa (Gaitasun Diskurtsiboa)
- Morfosintaxia, lexikoa eta ortografia (Gaitasun Linguistikoa)

#### 1. Komunikazio-egoerara egokitzea. Gaitasun Soziolinguistikoa.

**Egokitasuna** propietatearen bidez testua komunikazio-egoerarekin eta testuinguruarekin lotzen da. Hala, testuak komunikazio-egoeraren parametroak islatzen ditu: idazlearen jarrera, komunikazio-asmoa, ekoizpen- eta harrera-kanala... eta horiek testuari dagozkion hizkuntza-erregistroaren ezaugarriak markatzen dituzte. Halaber, testua komunikazio-egoerak eskatutako gaiari lotzen zaio.

Hauek dira **egokitasunarekin** zerikusia duten adierazleak:

**-Helburua.** Ea atazan proposatutakoa errespetatzen den ala ez: deskribatzea, kontatzea, azaltzea, argudiatzea... eta ea item-eko agindua betetzen den (narrazioa idatzi, albiste, gutuna...).

**-Gaiarekiko lotura.** Ea informazioa esanguratsua den emandako komunikazio egoerari erreparaturik eta ea ikasleek ekoitzi behar duten testu-generorako egokia den. Ea proposatutako komunikazio-egoera kontuan izanik, informazioaren kantitatea nahikoa den eta kalitateari begira esanguratsua den.

**-Hizkuntza-erregistroa.** Ea erabilitako hizkuntza-barietatea (formala, ez-formala...) ondo egokitzen zaion proposatutako hizkuntza atazari.

**-Testu-generoari dagozkion beste zenbait adierazle:** objektibotasuna/ subjektibotasuna, igorlearen eta hartzailearen agerpena testuan, aditz pertsonari eustea... (ezaugarri hauek balioetsiko dira beti ere eskatutako testuan esanguratsuak badira).

#### 2. Koherentzia eta kohesioa. Gaitasun diskurtsiboa.

**Koherentzia** propietatearen bidez testua, oro har, zentzu-unitate gisa antolatzen da. Informazioaren aukeraketan eta horren antolaketan egitura jakin bat ikusten da.

**Kohesioa** propietateak biltzen ditu testuko informazioaren arteko loturak ahalbidetzen dituzten hizkuntza-mekanismoak. Mekanismo horiek, batez ere, bi motakoak dira: morfosintaktikoak eta lexikoak.

Hauek dira **koherentziarekin eta kohesioarekin** lotutako adierazleak:

**-Informazioaren garapena eta koherentzia.** Ea informazioa modu esanguratsuan aukeratzen den, eta ea ez dagoen kontraesanik, alferrikako errepikapenik, betelanik... eta ideiak eta datuak modu logikoan garatzen diren.

**-Testu-egitura.** Ea eskatutako testuaren egitura errespetatzen den: narrazioa, deskripzioa...

**-Kohesio-mekanismoak.** Ea testuko atalak ongi lotzen diren, testu lokailu eta antolatzaile egokien bidez, erreferentea galdu gabe, gaiaren garapena bermatuz.

### **3. Morfosintaxia, lexikoa eta ortografia.Gaitasun Linguistikoa.**

**Gaitasun Linguistikoa** propietatearen bidez testua arau gramatikaletara egokitzen da. Arau morfosintaktikoen eta ortografikoen erabilera zuzena eta lexiko egokiaren erabilera dira irizpide nagusiak.

Hauek dira adierazleak:

**-Morfosintaxia.** Ea egitura morfosintaktiko zuzenak eta askotarikoak erabiltzen diren.

**-Lexikoa.** Ea eskatutako gaiari ondo egokitzen zaion lexikoa erabiltzen den.

**-Ortografia.** Ea hizkuntzaren oinarriko ortografia arauak errespetatzen diren.

## 2. HIZKUNTZA ORIENTABIDEAK. GRAMATIKA, ORTOGRAFIA ETA PUNTUAZIOA.

Testua irizpide honetan 3 puntu izateko, hurrengo arauak kontuan izango dira.

### Akatsen balorazioa *gramatika arloan*

- Aditzaren komunztadura ez errespetatzea: “*She love*”, “*he go*” “*students goes*”...
- Subjektua, aditza edo artikularen falta: “*is big*”, “*I football*”, “*it is boy*”...
- Ordena gaizki: “*likes she flowers*”, “*went I to Bilbo*”....
- Aditz-jokoa: “*he lives not in Asia*”...

Aurreko errakuntza morfosintaktiko bakan batzuk onargarriak badira ere, akats larriak sistematikoki egiten baditu edo, sistematikoki izan gabe, puntu desberdinetan behin eta berriz huts egiten badu, 2, 1 edo 0 mailetan kokatuko zaio.

### Akatsen balorazioa *ortografia arloan*

Ikasleek idazlanetan egiten dituzten akatsak era askotakoak izaten dira: batzuk munta handikoak edo “larriak” eta beste batzuk ez hain larriak edo garrantzi gutxiagokoak. **Huts txikitzat** joko dira erabilera urriko hitzen ortografia (“*diferent*” “*necessary*”...) eta hurrengo adibideak: “*it’s*” (its, is), “*he’s*” (his) edo alderantziz.

Oinarrizko arau ortografiko eta morfosintaktikoetan eta maiztasun handiko hitzetan egiten direnak akats larritzat hartuko dira. Maiztasun urriko hitzetan edo egitura sintaktiko konplexuago edo bitxiagoetan egiten direnak ez dira normalean hain garrantzitsuak.

Ondokoan idazmenean behinik behin **larritzat jotzen diren** hainbat **akats** ematen dira, adibide gisa:

- Erabilera handiko hitzetan egiten diren akatsak larriak dira beti, hala nola aditz laguntzaile formetan: “*I an*”, “*yu ar*”, zenbakietan: “*guan*”..., gorputz ataletan: “*jan*”(eskua)...
- Letra xeheen erabilera: izen propioetan, idazten hasterakoan, esaldien hasieran eta puntuaren ondoren.
- Puntua ez erabiltzea paragrafoen amaieran baita ideia bat biltzen duen esaldi baten amaieran.
- **Emandako eredutik hitzak akatsekin kopiatzea (“*afrika*” “*guait*”).**

Akatsak urriak eta ez larriak direnean 5, 4 edo 3 mailetan kokatuko da idazlana. Kontuan izan akats bakar bat bezala kontatuko dela akats hori hitz berebean behin baino gehiagotan suertatzen denean.

### Akatsen balorazioa *puntuazioan*

Ikasleen idazlanetan, gutxienez, marka hauek agertu beharko liriateke:

- Paragrafoen amaieran puntua joan behar da, baita ideia bat biltzen duen esaldi baten amaieran ere.
- Harridura eta galdera ikurra behar direnean ipini behar dira.
- Koma zenbakitzetan jarri behar da.
- Erabiltzen direnean, ondo erabiltzea: komatxoak, parentesiak eta gidoiak.

**GARRANTZITSUA:** Ikasleak **20 hitz baino gutxiago** idatzi baditu, **edo** ereduaren **hitz klabeak soilik ordezkatu baditu, atal honetan** gehienez **3 puntu** lortu ahal izango ditu.

**3. IDAZMENAREN EMAITZAK JASOTZEKO TXANTILOIA**

IKASLEA: \_\_\_\_\_

DATA: \_\_\_\_\_

ADIERAZLEAK	0	1	2	3	4	5
1. Komunikazio-egoera egokitzea (Gaitasun soziolinguistikoa)						
2. Koherentzia eta kohesioa (Gaitasun diskurtsiboa)						
3. Morfosintaxia, lexikoa, ortografia (Gaitasun linguistikoa)						
	HASIERAKO MAILA		ERDI MAILA		MAILA AURRERATUA	

#### 4. PROBA



## DESKRIPZIOA

### MY FAVOURITE MONSTER

Look at Ann's description of her favourite monster.




He is small. He's green. He has got two heads, two red mouths, four blue eyes and four yellow ears.

He doesn't like eating pizzas. He likes eating Nintendo games.

He is a very friendly monster from the planet Greenatopia.

Now, write about this monster. **Write 30-40 words.**



He is \_\_\_\_\_


\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_



## DESKRIPZIOA: ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

	0	1	2	3	4	5
<b>KOMUNIKAZIO-EGOERARA EGOKITZEA</b> (Gaitasun soziolinguistikoa)	Testuaren <b>helburua</b> ez da betetzen: "Monster"-a idatziz deskribatzea ereduari jarraituz. Testua ulergaitza da.	Testuaren <b>helburua</b> ez da betetzen: "Monster"-a idatziz deskribatzea ereduari jarraituz. <b>Garrantzitsua:</b> testua partzialki ulertzeko behin baino gehiagotan irakurri behar da. Eskatutako <b>informazioa</b> ez da ageri.	Testuaren <b>helburua</b> nekez betetzen da: ahalegina egin behar da "monstuo"-ren deskripzioa ereduari jarraituz hautemateko. <b>Garrantzitsua:</b> testua ulertzeko berrirakurri behar da. Eskatutako <b>informazioa</b> ez da ageri. Hurrengo alderdi bati/batzuei buruz partzialki idatzi du: -fisikoki deskribatu du (2-3 ezaugarri), -zer gustatzen zaion jateko /zer ez, -nongoa den.	Testuaren <b>helburua</b> betetzen da: "Monster"-a idatziz deskribatzea ereduari jarraituz orokorrean. <b>Garrantzitsua:</b> lehenengo irakurraldian testua ulertzen da. Orokorrean, eskatutako <b>informazioa</b> ageri da: <b>AUKERA 1</b> -fisikoki deskribatu du (4-5 ezaugarri), (derrigorrez) -gainera <b>EDO</b> hurrengoei buruz idazten du: zer gustatzen zaion jateko /zer ez, <b>EDO</b> nongoa den. <b>AUKERA 2</b> -fisikoki deskribatu du (3-4 ezaugarri), - <b>ETA</b> hurrengoei buruz idazten du: zer gustatzen zaion jateko /zer ez, nongoa den. <b>AUKERA 3</b> -fisikoki deskribatu du (3-6 ezaugarri), - <b>ETA</b> ideia berri bat gehitu du (izena,...).	Testuaren <b>helburua</b> betetzen da: "Monster"-a idatziz deskribatzea ereduari jarraituz. <b>Garrantzitsua:</b> lehenengo irakurraldian testua erraz ulertzen da. Eskatutako <b>informazioa</b> ageri da: -fisikoki deskribatu du (5 ezaugarri): kolorea, tamaina, gorputzaren zatiak zenbakiekin edo/ta koloreekin...) - <b>ETA</b> 1-2 ideia berri gehitu du (zer gustatzen zaion jateko /zer ez, nongoa den). -Ideia berri bat gehitu dezake (izena,...)	Testuaren <b>helburua</b> erabat betetzen da: "Monster"-a idatziz deskribatzea ereduari jarraituz. <b>Garrantzitsua:</b> lehenengo irakurraldian testua oso erraz ulertzen da. Eskatutako <b>informazioa</b> oso argi ageri da: -fisikoki deskribatu du (5-6 ezaugarri): kolorea, tamaina, gorputzaren atalak zenbakiekin edo/ta koloreekin... - <b>ETA</b> gutxienez, 2-3 ideia berri gehitu ditu (zer gustatzen zaion jateko /zer ez, nolakoa den, nongoa den). -1-2 ideia berri gehitu ditzake (izena,...)
<b>KOHERENTZIA ETA KOHESIOA</b> (Gaitasun Diskurtsiboa)	Deskripzioaren testuaren <b>egitura</b> ez da errespetatzen. <b>Informazioaren antolamendua eta progresioa:</b> -Ideiak loturarik eta garrantzirik gabekoak dira. -Ageri den informazioa oso urria da.	Deskripzioaren testuaren <b>egitura</b> ez da errespetatzen. <b>Informazioaren antolamendua eta progresioa:</b> -Ideiak ez daude era logikoan antolatuta; desordenatu samar daude eta inkoherenteak dira. -Testuaren erdia baino gehiago beste hizkuntza batean ager daiteke. -Testuaren erdia baino gehiago eredutik literalki kopiatuta egon daiteke eta testuinguruarekiko inkoherentea da.	Deskripzioaren testuaren <b>egitura</b> errespetatzen da <b>EDO</b> partzialki errespetatzen da. <b>Informazioaren antolamendua eta progresioa:</b> -Ideiak ez daude era logikoan antolatuta; desordenatu samar daude eta datu batzuk inkoherenteak dira. -Esaldi batzuk beste hizkuntza batean ager daitezke. -Esaldi batzuk eredutik literalki kopiatuta egon daitezke eta testuinguruarekiko inkoherenteak dira.	Deskripzioaren testuaren <b>egitura</b> errespetatzen da. Beste beste testu motatako zati bat ager liteke tartean (elkarrizketa, agurrak,...) <b>Informazioaren antolamendua eta progresioa:</b> -Ideiak era logikoan antolatuta daude: -ereduko paragrafoaren ordena errespetatzen du, -gerta daiteke informazioa lotzeko konektore bat erabiltzea ( <i>and, but,...</i> ) -Ereduaren informazioa ordezkatzeko du testuinguruarekiko datu egoki eta koherenteekin orokorrean (egon daiteke daturen bat kopiatuta edo/ta inkoherentea).	Deskripzioaren testuaren <b>egitura</b> errespetatzen da. <b>Informazioaren antolamendua eta progresioa:</b> -Ideiak era logikoan eta ordenan antolatuta daude: -ideiak paragrafoetan antolatuta daude - <b>ETA</b> informazioa lotzeko konektore bat gutxienez erabiltzen du ( <i>and, but,...</i> ) -Ereduaren informazioa ordezkatzeko du testuinguruarekiko datu egoki eta koherenteekin.	Deskripzioaren testuaren <b>egitura</b> errespetatzen da. <b>Informazioaren antolamendua eta progresioa:</b> -Ideiak era logikoan eta ordenan antolatuta daude: -ideiak paragrafoetan antolatuta daude - <b>ETA</b> informazioa lotzeko konektoreak erabiltzen ditu ( <i>and, but,...</i> ). Horiek errepika daitezke testuinguruarekiko egokiak baldin badira. -Ereduaren informazioa ordezkatzeko du testuinguruarekiko datu egoki eta koherenteekin.
<b>MORFOSINTAXIA</b> <b>LEXIKOA,</b> <b>ORTOGRAFIA</b> (Gaitasun Linguistikoa)	Gramatika eta ortografia akatsak hain dira ugariak eta larriak diren komunikazioa erabat oztopatzen dutela. Proposatutako egoerari aurre egiteko, hiztegi falta nabaria somatzen da.	Gramatika eta ortografia akatsak hain ugariak eta larriak diren komunikazioa erabat oztopatzen dutela. Proposatutako egoerari aurre egiteko, hiztegi falta nabaria somatzen da.	Gramatika eta ortografia akatsak nahiko ugariak eta errepikatuak dira eta batzutan komunikazioa oztopatzen dute. Hiztegia ez da egokia: hitzak errepikatzen da edo hitzak beste hizkuntza batean erabiltzen ditu hiztegi faltagatik.	Testuaren gramatika eta ortografia akatsak ez dute komunikazioa oztopatzen: mezua lehenengo irakurraldian uler daiteke. <i>Ikusi hizkuntza orientabideak (4. orr).</i> Proposatutako egoerarekiko, hiztegia egokia da. Gerta daiteke hitzen bat beste hizkuntza batean erabiltzea, komunikazioa bermatzeko helburuarekin.	Testua zuzena da, akats larriren bat egon daitekeen arren. Bi akats txiki ere egon daitezke. Proposatutako egoerarekiko, hiztegia egokia da.	Testua gramatikaren eta ortografiaren aldetik zuzena da, bi akats txiki egon daitezkeen arren. Proposatutako egoerarekiko, hiztegia egokia eta era anitza da.



## ADIBIDEAK

### HASIERAKO MAILA

Maila honetako ikasleak testuaren helburua ozta-ozta betetzen du. Informazio urria eskaintzen du. Neke ulertzen diren ideiak adierazten ditu, eta emandako eredia ia hitzez hitz kopiatzen du.

Eredu bati jarraituz, testuaren generoaren oinarrizko ezaugarri batzuk errespetatzen ditu. Ideiak ez ditu modu logikoan antolatzen. Sarritan, beste hizkuntza bat erabiltzen du, edo eredutik koherentziarik gabe kopiatzen du.

Gramatika eta ortografia akats ugari egiten ditu testuaren ulergarritasuna oztopatzen dutenak. Hiztegia pobrea da, eta sarritan agian beste hizkuntza batera jotzen du.

he has four legs and hand 3 ears and 3 head 6 eyes 10 fingers  
 hasn't nose he has got four feet hasn't got tail he long hair  
 and straight.

28

He's small. He's purple he's got three heads for  
 black eyes He likes Pizzas He doesn't like ice cream  
 He's a very friendly monster from the planet  
 Greenatopia.  
 Now write about this monster.

36

## ERDI-MAILA

Maila honetako ikasleak testuaren komunikazio-xedea betetzen du: oro har, eskatutako informazioa ematen du. Ereduko informazioa datu egokiez eta gehienetan testuinguruarekiko datu koherenteez ordezkutzen du.

Eredua jarraituz, testuaren generoaren egitura errespetatzen du. Ideiak era logikoan ordenatzen ditu, ereduaren paragrafoen ordena gordez. Informazioari kohesioa emateko, gutxienez testu-lokailu bat erabiltzen du.

Gramatika eta ortografia akatsak egiten ditu, baina testuaren ulergarritasuna oztopatu gabe. Hiztegia erabiltzen du. Komunikazioa bermatzeko, inoiz hitzen bat beste hizkuntza batean idatz dezake.

Maila honetako adierazleez gain, aurreko mailetakoak ere barne hartzen ditu.

My favorite monster  
 Look at Foo description of her favorite monster  
 He's big. He's ~~black~~. He's got ~~one~~ ears, ~~one~~ ~~eye~~ three heads, ~~two~~ three mouths, six black eyes and orange ears. Four arms ~~two~~ grey, ~~and two~~ on two grey, one brown and one pink. He's grey.

38

He is big. He's got four legs, six ears orange ears, six eyes and five hairs.  
 He doesn't like ice creams and burgers and he likes videogames.  
 He is from the planet Sheanton.  
 He's a friend a very very friend.  
 He's got three hairs.

40

**MAILA AURRERATUA**

Maila honetako ikasleak ereduari jarraiturik, komunikazio-xedea betetzen du. Eskatutako informazioa ematen du eta bere ideia propioak gehitzen ditu. Eredua erabiltzen du, ordezkapen koherenteak eginez eta ideia berriekin aberastuz.

Testuaren generoaren ezaugarriak errespetatzen ditu, eredu irekiago bati jarraituz. Ideiak era logikoan eta paragrafoetan antolatzen ditu. Informazioari kohesioa emateko, testu-juntagailu bat baino gehiago erabiltzen ditu.

Gramatikaren eta ortografiaren erabilerari dagokionez, idazlana egokia da, akatsen bat egin dezakeen arren. Hiztegi egokia erabiltzen du, bere ikasmailerako aberatsa.

Maila honetako adierazleez gain, aurreko mailetakook ere barne hartzen ditu.

He's big. He's got four heads, three pink mouths, six orange ears and dark hair. He does like pizza and tomatoes. He likes playing Nintendo games and watching TV. He's a skating monster but doesn't like the planet.

+40

He's big. He's grey. He's got three heads, three pink mouths, six brown eyes and six orange ears. He doesn't like <sup>eating</sup> pasta. He likes eating pizzas.

31